

MIKEL ZARATEREN OROITZAPENA

Egunsentia irripartsu hurbildu zitzaigun, ilunaren azken lorratzak bere argitan suntsitu ondoren.

Egun bakoitzak duen mentura bidean lankide eta inguru-babes ezti izango genuela, nork ez sinestu? Baina bapatean zorigaitza: goialdea betoskoz jarri zen eta ekaitza, bidean. Ametsak amets!

78-79. ikasturtean, Deustuko Euskal Filologian, literaturako irakasle, Mikel Zarate izendatu zuten. Han azaldu zitzaigun irripartsu, ameslari eta amets-eragile. Asmo bikainak sarkorrek zituen. Euskal literatura herrikoiaaren aurpegi liluragarri bezain izkutua erakutsi nahi zigun: ipuinen mundu miresgarria, koplak zaharrak, bertsolaritza, ahoz-ahozko adierazkortasun bideak... hitz batez, herri-herriaren altxorrez bete den harrobi agortu ezina.

Haren gidaritzapean herri-literaturan zehar itzul-inguruetxo egin ondoren, eztitan egoten ginen, ni neu bai behintzat, eta irudimena azkorturik, hurrengo klasea noiz izango.

Baina uste gabean zoritxarra: onen-onenean joan zitzaigun.

Geroztik, beste irakasle batzuekin, Mikelen ipuigintza

landu genuen piska bat. Orduan egindako emaitz apal bat duzue hau.

EKIDAZUKO ASTASENDIA

Alegion ingurunea

Alegigintza, Zaraterentzat, bere sentipen-edukia hustutzeko bide aproposa gertatu da. Hari ondoen zegokion jeneroetarik bat horixe dela dirudi.

Kezkatia zen berez, hitz honen zentzurik onenean. Euskal Herriaren zorigaitzez eta batez ere euskararen hil edo biziko burrukaz nahigabeturik zebilen. Baina erostaka eta alperreko hileta jotzeari ekin barik, burruka horretan murgildu zen bera ere, hain berea eta maitea zuen Herriari nola lagunduko.

Hainbat bide gurutze zitezkeen unean, Zaratek bere aukera egin zuen: Herriaren gorabehera, gazi-geza eta tirabiretan partaide izanik, guzti horrek senti arazten zizkionak bere literatura-moldeetan ixuri eta era herrikoi eta erraz batetan herriari berari itzuli. Horretan saiatu zen. Eta hori, herriarekiko zorra ordaintzeko zerga izan zen harentzat. Euskara zaharra gaurkotzea, trebetzea, literatura lantzea oso benetan hartzen ditu egunoroko bizitza-harian komunikabideetat eta burrukabideetat hautatu baititu. Hortik, apaiz izateaz gain, hari-harira datozkio bere bi langintza nagusiak: euskararen irakaskuntza eta literaturagintza.

Buskarari gagozkiolarik, idea bereziak zituen. Eten behar eta erzerria giro batetan, euskara bizi eta literarioaren arteko oreka zaintzera jotzen du. Euskara batu, landu eta literario bat sortu, baina bizirik ahoz-aho dabilena abiapuntutzat hartuz. Abiapuntutzat bakarrik ez, agian; geroko gidari eta sostengutzat ere bai. Bien arteko etenaren bildur zen —«IDATZ ETA MINTZ» lekuko—. Nik neuk, Zarate piska bat ezaguturik, zera esango nuke: bizkaiera eta batuaren artean ikusten zuela zorigaitzeko eten horren arriskurik nabarmenena. Bizkaiera bere-berea zuen, eta euskalki indartsu bat

izanik, euskara batutik hain bazter gelditzeak Euskararentzat ekar lezaken galera... hortxe zegoen gakoa, nik uste. Horrela, zubigintzan dakusagu. Auzi hau, «IDATZ ETA MINTZ» alegian adierazten du batez ere.

Alegiok zer girotako emaitz diren berak esaten digu argi eta garbi liburuaren sarreran. Gainera, badaezpada ere, adjetiboa jartzen die izenburuan: «IPUIN ANTZEKO ALEGI MINGOTZAK». Berak bizi izan duen bizitzagunea, berrogei urteko mugan eta esperientzi garratzez ehundua dakarkigu. «Berrogei» zenbakia, Biblia kutsuz, esanguratsu dator: «Berrogei urteren bueltan eta berrogei egunean egin ditut ipuin antzeko berrogei alegi moztortu mingotsak». Beraz, hemen ere adjetiboak: moztortuak eta mingotsak. Bizigiroaren barne-mingostasuna darie alde batetik, eta moztortu-jantziz bestelakoturik agertzen zaizkigu bestetik.

Alegien eta alegilarien mundua azaltzen digu, gero, pintzelada zehatzez. Alegilariak bizitza bera dute kontagai eta eragile. Bizitzaren eragina, haren emaitza eskaini ohi dute moztorturik. «Zuzenbidearen gurariak sorturiko ondorena, literatura bidez azaldutako bizitzaren ondorena. Eta mingots samarrak izaten dira gehienetan alegiak, garagardoaren antzera». Aurreraxeago, bere alegiez mintzatzen zaigu: «Nire alegiok ere mingots samarrak dira, gaurko idazgiro mingotsa lakoak (...). Garagardoturik dagoz, zuzentasun gose-egarriak sortutako mingostasuna darioe, zorion-irritsak bizituriko mingostasuna, paradisu-ametsak irudimenean aundiagotutakoa».

Behin honez gero, aztertzeraz goazen gaiaren pare-parean gaude eta goazen geurera!

Egitura eta esanahia

Ipuinen eskema klasikoa jarraitzen da:

- protagonistaren egoera baketsua,
- etsaiak agertu eta haserako egoera hori nahasi, korapilotu,

—laguntzaileak inguratzen zaizkio —sarritan iratxoak, aztiak edo ta pertsonaia magikoak— eta bukaera ona ematen diote.

Lehenengo bi ataletan betetzen da eskema hau, baina ipuin harrigarri horietakoa barik, errealtate garratz batetatik jasoriko alegia dugu hau eta protagonistak ez du bukaera onik hemen.

Ekidazuko astasendia da protagonista, baina bapatean hauen aurkezpena egin beharrean, orokorki abere guztiena egingo digu. Egoera baketsu baten bizi dira denak. Errealitatean ez baina, ipuinetan eta irudimen hegalariaeren eremuan bakarrik izan liteken logikotasuna:

«otsoa ta ardia
zelai zabalean
sarri ikusten ziran
biak jolasean».

Bertso honetan, abereek elkarri begirunea izango dioten egoera liluragarri bat agertzen zaigu. Inork ez du bere ingurukoa etsai, eta *bakoitzak berean iraun dezake, inori eraso gabe*. Hementxe dagoela esango nuke alegia honen klabea: *astokeriarik egin gabe, astotasunari eutsi*. Idazlearen gogo-bizia, behinik-behin, hauxe da. Gero, bigarren zatian, indarraren legea ezarriarik, egoera baketsu hori nahasi delako, justizi-egarriak sorturiko garraxi bat bilakatuko da alegi hau.

Alegiaren egitura urratsez-urrats eta haren esanahia, hau izango litzateke nire ustez:

- Lehenengo Abereta agertzen zaigu egoera zoragarri batetan. Abereta = mundua. Aberetako —munduko— baztertxo batetan, Ekidazun asto-familia bat. Ekidazu, Euzkadi dugu (Sabino Aranaren idazkeraz dakar, bere «z» ta guzti), eta astasendia, berton bizi diren euskaldunak.

- Onen-onenean zihardutela, pizti-orroez izugarri bat entzuten da. Geroxeago, beste bat... Orroek mehatxu zantsua dute. Gerratearen iragarpena. Erpakadaka eta haginkadaka indarraren legea ezarri die ekidazuarrei.

• Ekidazuarrek galdu egin dute. Haiek beren makilapean erabiliko dituzte. Gerratearen ondorioak. «Burrukaldia amaitu ondoren, itsu-itsuka olgau eben irabazleok astakumeak». «Indarkeriaren indarra, indarbakoan negarra».

• Urteak joanaz, inoren menpean, baina itxaropena bizi haren baitan. Piztiagakoan baimenez, astategia berriztatu egin dute, larrosa gorriz, gorostiz eta lirioz. Hemen ikurriñaren irudia dago eta diktadurapeko Euskal Herriaren lana, aurrerapenak eta poliki-poliki bere buruaren berregitea.

• Kezka iraultzalea astoen bihotzetan. Zirriparra eta matxinadak Ekidazun. ETA-ren sortzea adierazten digu hemen. Leoikume eta otsokumez betetzen dira inguruak (polizi eta guardazibilak). Ondorengo elkarriketan, belaunaldien arteko tirabirak eta eritzi desberdinak nabari dira. Gerratea ezagutu dutenen eta ez dutenen artekoak batez ere:

—«Kontuz, astakumetxook, kontuz! —esan eutsen orduan astaitak astakumeei.

—Betiko leloa! Betiko kontuzko kontua! (...) Onela bizitekotan, oba il, ta kitu. Kitu ta kitu, asto bat il ta beste bat biztu»... Gogoangarriak dira astaitaren aholku hauek: «Naiz ta aurretik erabili, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti». Beraz, astokeriarik egin gabe astotasuna zaindu» (...) Leoikume ta otsokume, asto illa jatean adiskide».

• Astakume batek zauriturik uzten du ostikada batez otsokume bat. Gero, atxiloturik otso-habira daramate (garzelara). ETA-ren ekintzak.

• Erpatitza eta biltzarra. Diktadura ondorengo sasi-demokrazia? Gaintzuriketaz baliatzen den legezko bortxakeria. Gertaera zehatz bat ez dagokio nire ustez.

• Aitaitaren heriotzak etorkizun larria iragarten dio Ekadizuko astasendiari. «Iturri bi biurtu jakozan bere begi ederrak astamari».

Gaia

Egitura eta esanahia aztertzerakoan, bide batez, gaia ere azaldua dagoela esango nuke. Gaia, beraz, politikoa da alegi honetan. Zehatzago esateko, Espainiak Euskal Herriarekin izan duen bortxakeriazko jokaeraren salakuntza. Gai honen giltzarri bezala, herri guztiek, beren lur-eremuan eta beste batzuen ondoan, bakez bizi izateko eta bakoitza bere buruja-be izateko eskubidea nabari da.

Testoak, idazlearen eta euskaldunon baitan pil-pil dagoen auzi bat jaso du. Beraz, bene-benetakoa da; euskaldunok ondo ere ondo ezagutu eta muin-muinean ikutzen digun arazoa. Denborari dagokionez, oraingo gaia da, baina lehenean ere hedadura handia duena.

Teknika

Teknika eta estiloa gurutzatu egiten direnez, literatur elementuetarik zein zeinena den asmatzea ez da erraza. Nik neuk egia esan, ez ditut hain ondo bereizten. Hala ere, estiloan sartuko ditut haren idazle-nortasuna osotzen dutenak, bere-bereak diren berezitasunak; eta teknikan, berriz, gehienetan darabiltzan baliabideak.

Deskripzioak, narrazioak eta elkarrizketak darabiltza Zaratek, jeneroak txandakatuz. Alegi honetan, hasierako egoera azaltzen digunean izan ezik, ia deskripziorik ez dator. Narrazioa eta elkarrizketak dira nagusi, jakina! bertso eta herri-kantaren batzu tartekatuz. Bertsoak txertatzea ia haren estiloari dagokiona dela esango nuke.

Bertso eta herri-kantetan, herri xehearekin harremanetan jarri eta hura literatura irakurtzera gonbidatu nahi duela dirudi. Euskara biziaren kezka beti izan zuen eta ez dago zalantzarik irakurtzeko ohitura handirik ez zuen euskaldun herri xehea bereganatu nahi zuela. Beste aldetik, adierazpide bezala ere, bertso eta herri-kantetara joera berezia zuela argi dago.

Denboraren aldetik, kontaketa-harian ez du atzera-aurre-

rarik eta zulorik egiten. Urratsez-urrats doa aurrera, denborarekin jokorik eta korapilorik egin gabe. Egiten duena zera da: historia errealak hedadura luzea duenez, laburpen handiak egiten ditu kontaketan. Haserak oso urrunean jartzea klasikoa da ipuinetan. Horrek irudimena bizten du eta lilura eta mireskarritasuna ezartzen diskie. «Duela lau, bost, sei nahiz zazpi mila urte, nik ahal dakit, eta, gainera, zer axola dio?» honela hasten da Jesus Mari Arrietaren ipuin liburu bat.

Ekidazuko Astasendia ere berdintsu hasten da: «Orain urte asko, batek badaki zenbat».

Irudi hizkuntza da beste baliabide bat. Mozorroak esango digu berak. Kasu honetan animaliak dira, alegietan gehien azaltzen direnak hain zuzen. Hauek, bidezko denez, pertsonifikaturik datoz. Tokiak ere moztorturik ematen dizkigu: Ekidazu, Abereta, Piztiaga, astategia... «Irudi-izkuntzaz dotoretu nai izan ditut —diosku Mikelek— egia adierazteko bide zuzen bat dala uste dodalako, bide zuzen zaar baztertua, erri-erriarena». Inoiz gerta daiteke, gainera, zenbait gai arriskugarritan irudietara jo beharra... ondorio txarretatik babes-ten duen hesparru izkutua delako.

Abere giroko hiztegi bat asmatzen saiatu da Zarate, eta lortu ere egoki lortu duela esan behar. Horrela, abere-ipuinetan abereei dagokien mundua hobeki adierazten digu. Berak alegietarako hautatu dituen kokoxak izen eta hitzetan ere jarraitu egin nahi dituela dirudi, eta bide batez beste gauza bat ere lortzen du nire ustez: alegietako hiztegia gaurkotu eta aberastu.

Goian aipatu ditugun toki-izenez gainera, hona hemen darabiltzan hitz batzu: «erpatitz», «katuil», «ankatitz», «astaldiz-astaldi», «ankabideak», «aberetarrak», «astakeriak», «astotasuna», «tximinokeriak», «orroeka», «murrusaka», «irrintzika», «kurinkaka», «urrumaka», «zaunkaka», «ostikadaka», «adarkadaka», «nire narru ta ortzetako aberetar narbarrok», «astaita», «astama»... Erpatitzaren hasieran izen berezi bezala pertsonifikaturik dator «Astar laguna» eta berdin aurreraxeago «Untxi», «Lapin» eta «Kukumixa».

Baserri giroko irudiak dira gehienak. Protagonista den

astasendia ere baserri girokoa da, baserritarra da. Astoa protagonistatzat aukeratze honek, behar bada, idazlearen ideologia salatuko edo agertuko luke, baina ez nago ziur hortik ezer ateratzerik dagoenik. Astoa etxe-etxekoa da gure baserrietan, abere mantsoa, ostikalaria noiz-behinka, pentsalari itxurakoa, sufritua eta burugogorra, berea egitekoa. Ideologia baten susmoa astoa, abere mantsoa aukeratzean eta astaitak esaten dituen hitz hauetatik datorkit batez ere: «Gu geu gara ta gure geuretasuna geuregan zaindu bear dogu. Naiz ta aurretik erabilli, bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti».

Ikurriñaren ezaugarria emateko ere baserri giroko irudiz ematen digu: *gorostia*, lirio eta larrosa.

Ekintza adierazten duten aditz-lagunak ugari dagoz: «ixil-mixilka», «itaunka», «arrantzaka eta saltuka», «orroeka eta eupadaka», «erpadaka eta aginkadaka», «zotinka eta zizpuruka», «murrusaka, irrintzika, kurrinkaka, urrumaka, zaunkaka, saltoka, ostikadaka, adarka» «arrapaladan»... Esaldi konposatuetan, aditz nagusia aditz nomilalizatuz etorri ohi da: «esan eutson urduriturik astaitak», «galdetu eban astamak ere, bildurkilik astaita besarkatuz»...

Adjetibo batzu ere azpimarratuko nituzke oso egoki jarriak baitira: «eguzki alai, lora koloretsu, txori kantari, bedar guria (...) jaialdi ta jolasketa itzelak» «Orroe zoli indartsu», «Orroe ikaragarri bat», «Orroe izugarria», «Leoikume bigo-terre bat», «otso argal ulezko bat», «astakume azkar ausarti bat», «lotsagalduko maltzur zantar batzuk». Eta Aberelkar-teko hitzaldietan edozenbat adjetibo datoz, batzutan leoi jaunaren ontasuna goratzen eta etsaien gaiztakeria salatzen bes-tetan.

Aliterazioetara sarri jotzen du: «Laugarren orroe bat entzun zan. Eta bosgarena (...). Eta seigarena, eta zazpigarrena, ta..., trumoia ere orroeaka asi zan, orroeaka eta negarrez. Orroearen orroe-larria eta dana orroea!». Kontsonante darkarien pilaketa dago. Berdin «amurratu» hitzaz egiten di-tuen jokaetan. Nabarmenago oraindik «orroeka, murrusaka, irrintzika, kurrinkaka, urrumaka» etab. sartzen dituenean. «Gu geu gara ta gure geuretasuna geuregan zaindu bear do-

gu», hemen ere aliteraziora jotzen du, baina beste fonema batzuez baliatuz.

Estiloa

Zarateren estiloan, alegi honi dagokionez batipat, hauexek aipatuko nituzke: herri-esakerak, bertsoak, herri-kantak, hitz-jokoak, hots-hitzak, errimadun esaerak eta hitz errepikatuak.

Bertso eta herri-kantaz, goian esandakoaz nahiko da. Herri-esakeren artean hauexek azpimarkatuko nituzke: «Indarkeriaren indarra, indarbakoen negarra». «Betiko leloa! Betiko kontuzko kontua!» «Onela bizitekotan oba il, ta kitu. Kitu ta kitu, asto bat il ta beste bat biztu». Errimaduna da esakera hau. «Bere astotasuna zaintzen dauan astoa asto izango da beti». «Eta beti astoak ardaoa ekarten eta ura edaten?». «Gazte zagoze ta, bai ba, odola bizi. Baiña asto txikia beti astakume. Leoikume ta otsokume, asto illa jatean adis-kide. Leen alan, orain olan, gero ez jakin zelan». Azkenengo hau errimaduna da eta elipsiak daude, herri-esakerarik gehienetan bezala.

Hots-hitzak abereen zaratak imitatzerakoan datoz batez ere. Hitz-jokoak ugariagoak dira: «astokeria» «astotasuna», «astaldiz astaldi», «ankabideak», «erpatitza», «ankatitza», «arrantzalariagotu», «kontuzko kontua», «otsokeriak eta tximinokeriak», «Orroearen orroe larria eta dana orroea». Hone-lakoak behin baino gehiagotan datoz.

Hitz errepikatuak ere Zarateren estiloan sartzen dira: «ixil-mixilka», «kanta-kantari eta dantza-dantzari», «indarkeriaren indarra», «orroearen orroea», «joan ziran urteak ere. Eta joanak joan», «kontuzko kontua», «kitu ta kitu», «astiro-astiro», «bat-batean»...

Pertsonifikazio eta metafora bat aurkitu dut —hau tek-nikan sartu beharko nuen baina... zera dioenean: «Eguzkia ere larritu egin zan bat-batean. Eta laiño arteko bere jauregira sartu, ta trumoi jarri eban atezain».

Luis Baraiazarra